URRILLA
31
Larunbata

Bilbao, 1936

Euzkadi

ARPIDE-SANEURIJA

Bilbao'kua	9,00	ifko. iru ile…	
Bilbao'atazkua ...	11,25	"	"
Idazki-itunmena ...	62,00	"	urte…
Atzerijetakuak ...	112,50	"	"

Beldayen itunduba

XXIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.440 zenbakija

Gayak

ASTEROKO BARIJA

Datoren egubaztenian asteroko barija ixango dogula diñue, ta bere ixena, "Gudari" ixango dala.

Gudea ta matxinadea baño besterik ikusten eztan aldi onetan ezarteko, ixen egokija da, ixan be, ixen ori.

Astero agertuko yakun "Gudari" bari ori, euzko-gudarija ixango dala uste dogu, ta Jel-ikuritza aiko-maikuetako naste barik aldeztuko dabela.

Euzkereari yaokan leku berezija emongo dautsala be, zalantza bako ziniskaya ixango dala esango geunke, euzko - gudarija benetako abertzalia ixan biar da-ta.

Aldi au euzkereari yaokan indar gustija emoteko-ta, berebixiko aldija da ixan be.

Euzko-Araudija etxian dogula bixi gara, ba, ta Euzko-Ikastola nagusija etxeko atietaraño elduta ikusten dogula.

Euzko - Araudijak euzko-elia berea dau, bariz.

Euzkera bako Euzko-Araudijak, arima bako soñaren antza ixango leuke, ba.

LANA IXANGO DAU

"Gudari" asteroko barijak, lan-egari aurkitzen ba-da be, egari ori ase al -ixateko lana ixango dau.

Euzkera-aldez lan eta lan egiten dabenak, alorta gitxi be gitxi artzeko, lan asko-asko egin biara ixaten dabe.

Euzkerea ereteko soluak landutia, lan neketsuben artian, neketsubenetarikua da.

Neketsuba ta urija be bai, bata txalo gitxi irabaztekua be. Ezespena ta ostikadea irabazteko, ostera, berebixkua da.

Euzkeraz idazti ederak askotxu idatzi ixan dira, ta bai amaikatxu olerki mamintsu ta ondo laundubak argitaldu be.

Euretzazko goralben askorik ezta entzun ixan, zabaldu be gitxi baño eztira egin ixan-eta.

Euzkeraz idatzi ixan diran idazlan asko ta asko, antzerki, olerki ta edestixunak be, idazle ospez burestundutako idazle batek, gazteleraz idazten daben edozein idazlek ixenpetuta agertu ixan ba'ziran, ixan daben baño ospe obia ixango eben, eta saldu ixan diran baño ijeki geyago saldu be.

Euzkereari bixitza barija emoten ibiltia, lan neketsuben artian, neketsubenetarikua da. Euzkel-idazliarentzat eztago txalorik, ezta begikotasunik be. Euzkera-soluan lan dagijanari, gotik bera begiratuten yako, ta jakingiaren neurijaz neurtu - ondoren, gixagaxo -janzkija josten dautsoe.

BAÑA, ZUK, "GUDARI"...

Baña, zuk, "Gudari", datoren egubaztenetik asita ixango dozuzan gudaka gogoretan, zeure gudari-ezpata zorotza agertuko dozu, ta euzkerearen gurendea lortu-arte etzara geratuko.

Batez-be, euzkeldunei, alde bijetatik zoroztuta erabiliko dozun gudari-ezpata ori, abertzale-antzo erakutsiko deutsazube, ta euzkerearen ganetik gaztelerea erabilteko otura itxusija daben gustijei alde bijen zorotzaz ukutu barik, eztozu ezpata-lekean gordeko.

"Gudari" ixenaz guda - oneratuten zarala, eztagitzula aiztu, aren, ezta Euzkadi'ren gudarija zarala be.

Euzkadi'ren gudarijaren egin biarik beñena ta garantzitsubena be, bariz, aberijaren gogua dan izkuntzea aldeztu ta gaizkatutia da.

Bai-dakizu, ta ondo jakin be, Euzkadi'ren erijotzea eskatzen dabenak, euzko-goguaren aurka dabiltzala, euzkotaron izkuntzea dan euzkereari zaurijak-zauri ezarten diñardubela.

Aor, Arasate'n berton, Euzkadi'ren bijotz-bijotzian, euzkeraz itz bakar bat oguzteko eskubide barik aurkitzen diran euzkeldun jatorak, aneika ei-dira.

Euzkerazko itz bakotxa, bost ogerleko ordaindu biara ei-dabe, ta batetik gorakuak, mila erial eta geyago.

Arasate'ko ereketiak euzkereari egiten dautsen irain ori, zuk "Gudari", zeure euzko-ezpata zorotzaz zigortu biar dozu.

Euzkeraz dakijan euzkeldun bakotxari, girifia-bidez edo biarixan barik oguzten daben gaztelerazko itz bakotxeko, len be esanda daukagun zigora ezari biar dautsazu: eun euzkel-itz oguziazotia.

Emen diñotzuguzanok egiten ezpa-

-dozuz, "Gudari", gudari epeltzat etsiko zatubez, ¡euzkel - aldezle makaltzat...!

Epelen egiñenakaz edesti gitxi idatzi ixan dira, bariz. Eta idatzi ixan diranak be, lotsagari baño eztira ixan.

Guda-garaikur ospetsubakaz apainduriko txapelik eztogu bein be ikusiko gudari makalen burubetan.

Baña, "Gudari", zurian, ikusi gura genduke, euzkera ta aberi-aldez dagikezun lanaz irabazitako garaikurik aldintsubena ikusi be.

"Gudari" asteroko abertzalia, datoren egubaztenian agertuko yaku. Euzkeraz agurtuko gauz ,euzkeraz erantzungo dautsagu. Eta bere lanak bide dirala garaikur-gai ixaten ba-da, gure txaluak berentzat ixango dira, bata garaikurik-garaikurena be.

Bestera ba'litz be, baña; epelontzi -ixena irabaziko ba'leu, irabazi, irabazten dabena ordaindu barik be etxako lagako.

¡Agur, "Gudari", agur!

IDAZKOLEA

"Gudari" asterokuaren euzkera-arloko artezkarijak idatzi dabezan leruak, ingoski onetan idoroko dozubez. Artezkarijaren lero oreik, "Gudari,,'rako idatzi gura daben idazliei zuzenbidia erakusteko ustez idatzijak dira.

"Gudari" asterokuan idatzi gura daben idazliak, euren idazlanak bidaldu-teko ixango daben zuzenbidia, auxe da: Bidebarieta, 14, 2, etxoña, Bilbao. Orixe da bere idazkolea.

IBON.

"GUDARI"

Orixe da, datoren egubaztenez urtengo dan asteroko barijaren ixena. Bastarak astertu ta Euzkadi-azkatasun aldez keyak ataratzeko asmoz urten be egingo da. Euzkereari, geure asaba zaren ele matagarijari yagokon leku berezija emongo dautso. Leku zabalak itxiko dautsoz.

Beraz, euzkel-idazliok, bizkortu zadixe. Bialdu zeben idazlan kementsubak. Suba darijoen lanak.

Bere idazkolea, Bidebarieta, 14'gn. ixango dau, Euzko-Gastedija'n. Eta ez atzo irarkolako okerez esaten zan lez Bidebarieta, 23'gn.

Bai-dakixube ba, Bilbao'ko Euzko -Gastedi'ra bialdu biar dozubezala "Gudari,,'rentzako diran idazlanak.

¡Itxartu idazliok! ¡Ekin lanari!

ARTEZKARIJA.

Euzkadi'ko ikuspegi artezijak



Eibar-auzuneko Arate ospetsuko txaunua da, emen, zugatz luzien erdijan dakusgun txagoradun basatxauno ori. Ardi zuri otzanak euren bildotsak tartian dabezela Arate-ingurubei emoten dautsen gentza-erea, gentzearen eredu zugatz antzo zuti ta zuzen iñora igituge agertuten yakun artzañak ikurartuten dausku. Benetako ardi zurijak edatuten daben gertzea, onakoxia ixan be ixaten da. Gentza au, baña, ardi-narubetan estalduta gudea egiten Arate-ingurubetaratuten diran etoyak, guzurezko ardijak uxatuten dauskube. Ezagutu doguz, baña, ta laster eurak be uxatuko doguz.

(Oxanguren'en argazkija.)

Diabru-labarrera

(Baso-ibilketa bat)

(Jaraipena)

Garbiñetxu'k esanikuak entzunda Irene neskatotxubak, enparau laguntxuak ipuñetzaz ixil-mixilka iñarduten eben bitartian bat-batez jagita, zutunduta, arpegi benez esan eban.

—¡Orek dozan kontuek! Oratik orek gauzok entzunda ikaratzen eztana be!

Ori entzunik, ipuñaren arija eten biar zala ikusita, atzamaragaz ezaugari bat egiñaz, iri-barez ta benez esan neutsoen.

—Ixi, ixi... Ixilik ezin zarie egon ala? Garbiñetxu'ri dana ledestuten itxi egijozue ba... Ondiño, bigaren ipuñaren zatirik garantzitsuena esateko daukutzue ba-ta... Ixilik, ba, ta entzun gogoz ta adi, itz bitan esaten dan zati txiki-txikija...

Orduan, Garbiñetxuk, onan jarai eban esaten.

"Eta, sai-arano areik eurein moko zorotzak sorgiñaren gorputzian sartu baño len, adar andidun arijak esan -gura andiz auxe esan eban:

"Ik ari, nik iri
gatxik ez egin iñori."

Ora ba, ipuñaren esanikuaren, ikasbidia itztxu bitan azalduta...—esan geuntsoen—. Gatxik ez egin iñori... ba Bestela... Jaungoikuak, andik, ortik edo emetik, txarto egiñari yagokan zigora ederto bialduko dau-ta...

Eta, azkenengo itzokaz oldozkor ziralarik, iru edo lau neskatok gelduta abo batez esan eben.

—¡Ene! ¡Olakorik entzuteko be! Oratik, onik aurera geuk iñori eztautsagu ezer egingo... Ikututxurik bez...

—Ezta iririk be iñori eztautsazue egingo...—jardetsi geuntsoen—. Sorgiñak burditxuan erabili eban umetxuak be, sorgiñari, bera baño zaragoari, irain egin eutson; itz zantarakaz iraindu egin eban. Eta orduan sorgiñak, asare-bitzetan labara-bera jaurti eban. Sorgiñari berari be baña, entzun dozuen lez "atzeko-martitxena" antxe bertan eldu yakon; txarto-egiñaren zijora antxe bertan ixan eban. Umiak eta sorgiñak be, ba, txarto-egiñaren sarija, obeto esateko, zijora, euren egiñekaz batian aurkitu eben.

—¡Oi, olakorik eztogu egingo ba...! Ezta iririk bez zaragoari...—neskatuak begi-zabalez esan eben—. Lengo egun baten be, eskeko aguretxu bateri, "Agurezara durduri" deritxon abestija iri ta barez abestu geuntson, eta ganera kuzkurekaz, ezkurekaz, arika egin... Geyago ez baña olakorik...

Mutikuak ostera, entzunak entzun egin aren, sorgiñatzaz ezer ezeben esaten; sorgiñak baño Ganoste-menditik burkada irjagaz etori zan gixonak zer oldoztu geyago emoten eutsoen. Euren adimenetan, biraularijaren gomutia ondo sarturik eguala esan zeinkian. Beratzaz bakarik itz-egiten eben.

Alako baten neskatotxu batek ba -diñotse.

—Zuek mutilok, Ganoste'ko gixonaren gomutiak, bildurez dardarka jari zatubeze.. ¿Eztok olan...?

—Bildure, bildure... Zuek lako lela -memelak garia'a uste dozue ala...? Sabin mutikuak erantzun eutson.

Gerotxuago bariz, Adirantxu mutikuak beti lez "donosu-donosu" ba-diño.

—Ze bildur da ze bildur oste...! Maldeziñorik jaurtin ez ta kitu...!

—Ori, ori... itz txarik ez gauza txarik egundo egiten ezpadozue, bildurik be eztozue egundo nabatuko. Sagarraga'tar Toma gixon begikuari amaikatxu bider entzun geuntson auxe. Garbi dauenak etxaukek bildurik." Beraz, zuek eta guk be, geure itz eta egiñetan garbijak ixan biar yuagu... Olan, bildura zer dan be etxuagu jakingo ta... ¡Orduan bai gu adoretsuak...!

Ipuñak zirala ta etzirala, ango itza ta mitza, ta ango itauna ta ango jakin-guria... Arnasarik artzen be ezeben izten. Danari banan-banan erantzuten zeregiñik asko... Arein jakin -gurea ¿nok ondo asetu...? Gauza zala... Onetan, Bitortxu mutiko totolua gustijen artetik bat-batez jagita, amar garen itauna egiten azartu zan, esaten ebalarik.

—Eta... a Ganoste-menditik etori zan gixona, txerenak nora eruan ete eban...!

—Nora eruango yuan ba...—esan geuntsoen—. Lenengo labara-gora arapaladan eruanda gero biar-bada bertatik bera bultzaka jaurti-ta edo, gaiztokiko sugaretara be eruan zeinkian..

—Eta... irijak eta burdija be bai...? Areik be gaiztokira...?

—Orixe etxakiagu ba mutil... Irijak eta burdija gaiztokiratu ziranik etxuago uste baña... Biraua gixona bakarik jaurti ebalako. Beraz, obenlarija gixona bakarik ixan zuan.

Olan, juatekotan gixona bakarik juan biar gaiztokira. Ango suak gaizto-galduentzat egiñak diralako...

Orduan, danak ixilik, danak oldozkor... Axiaren putza ta mendi-aberien aranotsa baño besterik etzan entzuten an. Umiaren artian olako ixiltasuna ¡gauziaren bakana!

Olako ixiltasunaren erdijan be baña, danak pozez egozan; danak jakin -gurez beterik...

—Eta biraua jaurti eban gixona, Jaungoikuak barik txerenak zegatik zijortu ete eban...?— danak itandu eben.

—Zer diñozue mutilak...?—erantzun geuntsoen—. Biraularijak Jaungoikuak bakarik zijortzen yozak, eta ez txerenak... Ganoste'tik etoririko biraularijaren jazokunaz gomutauta, a gixona, txerenak zijortu ixango ebala, edozeñek uste ixan leikek... Baña, guk, olakorik etxuagu uste; obenagaz Jaungoikua asaratzen dalako, eta ez txerena, gaiztokiko txerena poz-pozik egoten dok... Origatik ba, Ganoste'ko gixona be, txerenak eruan eban aren, gaiztokiko txerenak etxuan zijortuko, Jaungoikuak baño. Jaungoikuak txerenaren esku-baltzetan itxi ixango ebalako... Itz zantarak-eta entzunaz txerenak eta enparau alde-txarekuak artzen dabien poza zeueri azalduteko bariz, ontxe laster, Txilibrizto "Urkule-erdiko" etxagun zarari jazorikua edestuko dautzuet...

(Jaraitzeko.)

MAÑARIKO.

Matxinada -izparrak-eta

Matxinadea umautubaz duala esan leike. Eta gurendea, Erkala'rena ixango dala dirudi.

Euzkadi'ko guda - oñetan, Euzkadi -aldezliak, areyo bildurgarririk eztabe idoroten.

Eta Euzkadi'tik atetiko guda-oñetan be, paxizta gixagaxuen gurendeak eunetik batera jatsita dagoz.

卐 卐 卐

Talavera'ko egazkin-kabijari oldartu ixan dautsela diñoskube, eta baruban gordeta euki ixan dabezan amasei egazkin deuseztuta laga dabezela.

Paxiztei egin ixan dautsen egazkin -birintze ori, aundijetan be aundija ixan da. Eskerak, doisterijak eta italijarak egazkindegi aundijak dabezena.

Bestelan, España'ko paxizta gixagaxuak, Bilbao suagatuteko egazkin barik geratuko ziran.

卐 卐 卐

Erkala'ren aldezle diran egazkiñak, Talavera'ra ta beste leku batzubetara be eldu biar ixan dira: Sevilla, Caceres, Cordoba ta Granada'ra be bai.

Eta eldu ixan diran toki gustijetan egin dabena, Talavera'n egin ixan daben antzeko egazkin-birintzea ixan ei -da.

卐 卐 卐

Egazkiñak, egazkiñak apurtuten, bata-bestiaz gudaketa gogora egiten.

Paxiztak egin biar leukiena be orixe da: euretariko txorijei oldartu, ta gudeaz ikusi biarik eztauken uri ta basuri baketsubei, gentzaz bixiten laga.

卐 卐 卐

Oviedo'n be, egunotako izparak diñuenez, paxizten gudaroztiak atze-atzeka asita ei-dagoz. Aranda etoya estututen daben esija geruago ta estubago egiten ei-da. ¡Aranda gaxua! Matxinadea egiteko asmua artu ixan ebanian, orain jazoten yakana jazoko yakala jakin ixan ba'leu, ¿egin ixan daben egiñen ezeskari au egiteko adorerik ixango ete-eban, ixan...?

卐 卐 卐

Mizkerija baño areyo aundijagorik, ezer eztago, egon be. Aranda koronel mizkia ta aren taldeko gudalburu gustijak be, mizkerijak galdu ixan dauz, ba, Ondoegi bixi ixan ziran. Geyegi irabazten eben, eta lanik egin ez.

Eta asko irabazi ta lanik eztagijana, txerenak zirakatuten dau, ta galbidera eruan. España'ko gudalburu asaldarijei jazo ixan yakena be, orixe ixan da: mizkerija.

卐 卐 卐

Euzkadi'ko guda-oñetan, euzko-gudarijak, bata-bestiaz daunbadoska iñarduteko areyorik eztabenezkero, mitin -antzeko itzaldi aberkoyak oguzten ekiten ei-dautse.

Eta iradots-antzo gertauriko tramankulu batetik areyuei entzunazoten dautsezan itzaldijok dirala-ta, paxiztak, asare-antzo erantzuten ei-dautse. Eta euren asare-aldijetan, "Donostia'ra elduko zare, baña Nabara'ra, ez"— erantzuten ei-dautse.

卐 卐 卐

Tira. Donostia'ra elduteko axua emoten ba-dautse, Nabara'rakua Donostia'n atonduteko laga leike.

Ikusten danentz, ikusi, egun batetik bestera Bilbao'ra eldu biar zirala-ta arterik artu ezinda ibili ziran paxizta aroputzak, apalduten asi dira, burubak makurtuta Donostia'ra elduteko axua edo permixua emoten.

Gauzak asko aldatu dira. Zuzutsaren gurendea geruago ta argijago ikusten dogula dirudi.

Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa

ARKIBIDEA

1.—ERI-LANAK ZAINGOA.

Oroagindua.—Burnibide guzien baliatzea batuaz eta Baliatze ta Ekintza Goi-Batzordeak izendatuaz.

Oroagindua.—Duarikako joan-etori baimenak deuseztuaz eta zer - nola eman ta erabili bearko diran adierazjaz.

2.—ZUZENTZA TA GOGO-LANTZE ZAINGOA.

Agindua.— Bizkaya'ko Eri-Auzitegi Egintza Saileko epai-maikideak bere lekuetan baieztuaz.

Agindua.—Bizkaya'ko Eri-Auzitegi Lendakarija'ren aginpide uztea ontzat emanaz.

Agindua.—Espinosa'tar Joseba, Bizkaya'ko Eri-Auzitegi Auzi-Maisu, ta beroren Lendakari bezela izendatuaz.

Agindua.— Bizkaya'ko Eri-Auzitegi Lege Saileko epai-maikideak bere lekuetan baieztuaz.

3.—GIZARTE - LAGUNTZA ZAINGOA.

Agindua. — "Lanuza" finga artzea erabakiaz.

Agindua.—Karmeldar Lekaimeen lekaimetxea artzea erabakiaz.

Agindua.—"Nuestra Señora del Carmen" Bazkunaren igieziñeko, igigari eta bi oien tarteko diran ogasunak artzea erabakiaz.

4.—ERANSKIÑAK.

Bizkaya'ko Okindegi Nagusi Langileen arteko Epailetza.—Villarejo Garaizar'tar Imanol eta Toma'ri deituaz.

4'gn. Mendi Gudaltza.—Isasi Guzman'dar Gergori'ri gaztigua.

SAMIN TA ATSEGIN

Napar aldetik agertu ziran
laño zatarak
Ekaitz gogorak esitu zigun
Gipuzko Lura
Gudari fazist ta reketeak
egiñaz guda
Atek itxiaz ager zituzten
euran indarak.

Izkilurik ez, gizonak iges
Emakumeak utzirik miñez
Etori giñan anai Bizkai'ra
Batzuk legor ta besteak kai'ra.

Alare guda biotz barenan
Maiteak urun arkibaidira
Zer gau luziak
Ametsaz egin aren biriak
Itxartutzian ler naigabiak.

Neskatil bat zan espe Ordizi'n
Gau batez zindo au zan atera
Gipuzko utzita Lapurdi aldera
Maitasun bila
Biotzez maite zuan mutila
Ots egin ara ager zedila.

Beri pozgari au jakitean
Itxontzi buru mutil Burgaña,
Sendo ta zindo Maitea gana
Itxasoz dua ontzi batean.

Arturik Pozez bere laztana
Etori yakun Bizkai lurera
Gernika'n degun gudal-etxera
Esanaz: "Emen nik beltxarana".

Deun Simon Juda negu elduda
Oi dek eguna diyana aukera,
Sendi osatzen jaraik aurera
Ez dik ardura naiz egon guda.

Maite egik gogoz eta biotzez
Kistar onari dagokion lez,
Ta seme on onak azitzean
Biziko aiz atsegin ta pozez.

Zorion Burgain. Ezti Ilargi,
Emazteagaz diat opatzen,
Ire ezkontzak niok alaitzen
Agur biotzez bioi Litargi'k.

(Gernika'ko Gudal-Etxea'n.

Euzkadi'ko Bitarteko-Jaurlaritzaren Lendakari…

OROAGINDUA

Lendakaritzak urilaren 19'a… eta 21'gareneko Egunerokoan… zan Oroaginduaren 2'en ata… idatzia izan zalako. auxe agin…

Euzkadi'ko ikur eta ikuriñar… kion urilaren 19'gareneko Or… aren 2'en atala era ontan idatz… bedi:

Bigaren atala. Euzkadi'ko … ondoz goria izango da. Gañe… tzetik ertzera bi zerenda mu… aldamen-erditik aldamen-erdi… rutze zuri bat: Gurutze zuri … -gañean dala. Neurik, abetz… bitez: bost neurkin luze eta bi … larogei neurkin eunen zabal … lari, 0.43 m. dituzten zerendak… kio. Oialaren arauz, neuri ab… edo txikitu ditezke noski.

Bilbao'n 1936'gn. urilak 24.

Euzkadi'ko Bitarteko Jaurla… Lendakaria, Agire'tar Joseba …

ERRIJETAT…

Muxika

JAUPA BAT.—Datoren igand… jar goxeko 10'etan, Ariatza … txadonan jaupa bat ixango da.

Jaupa au, Muxika'ko E… Abertzale-Batzakuak eraldu … be, ta eri onetatik guda-oñeta… zan euzko-gudarijen zorijon-ald… duko da.

Goxeko sei ta erdijetan, j… orokora ixango da. Jaunartze … euzko-gudarijakin botera, eri … jaunartu leike. Goxeko jaupa … ixango da.

Amaretakua, ostera, abestu… xeko jaupa bijetara ta ara… eleizkixunetara be, ozte aundi… ko dala itxaroten dogu, geuk … togula ekari ixan dauskubeza… txar aldi onei atzerantz eragin… -yake, Goikua'ren laguntzea … yaku-ta.

Kistarak, benetako katoliku… darik eztabe gura, kistartasuna… dea alkaregaz batu ezin … gauza bardinge bi diralako.

Uskurtzaliok gura ixan … ekari ixan dauskubenezkero, … txerenaren goroto-bidezko ar… garaitzarik ixan eztagijantzat… tuei esijak imiñi biarian a… gara.

Goiko Jauna'k lagunduko al…

EUZKEL-IXENA.—Enbeita'ta… lendin eta Ealo'tar Kalare'k … oen lenengo euzko loratxubari, Augustin euzkel-ixen polita… dautsez. Atabitxi-amabitxijak, Augustin euzkel-ixen politak ez… tsez. Atabitxi-amabitxijak, j… txubaren atita amameak ixan… Ealo'tar Gabin eta Goirja'tar … Zorijonak Kepa Augustin e… dari barijaren gurasuei.

TXINDOR-KU…

EDESTIJA

Mendi goxaliak gara
Gorbei-ondokuak;
Zelan aztu Asabari
Len jazorikuak.
Ez gaoz gudan arokeriz
Iñoz bez gorotoz,
Jaungoiko-Lagizar-aldez
Ama zaintzen gatoz,

Nekazari-Langilen
Bekokiko-suak,
Galtzalduta daukaguz
geure izkiluak.

Nekazari ta Langilei
Iri egitiak,
Itxartu dauz lozorotik
Mendi-goxaliak.
Otxandijo-Padura-ta
Mungi-Gordexola'k,
Pil-Pil irikindu zitun
Asaban odolak.

Ama zergaitik itun
Ez ete gogorik?
Ezkoaz gu etxera
Euzkadi Azkatu barik.

Amatxo negar ez-egin
Gudarijak gaitik,
Sabin'ak zainduta gagoz
Donoki goi-goitik.
Ez Ama iñor gorotau
Maitatu urkua;
Auxe da Gorbei-ondoko
Gastien gogua.

Au poza geugaz dago
Sabin'an gogoa
Euzko-ikuriñagaz
Gudal-buru doa.

Odolagaz eratukua
Asaban il-autsa,
Izkiluz geuk egosita
Euzkadi'n jango da.
Jaunan ixena goraldu,
Euzkadi Azkatu
Egin-arte Ama'gana
Gu ezin bijortu.

Amatxo zuk azketsi
Arerijuari
Ez-jari gerotuan,
Ilten ba'nabe ni.

ZIDO…